







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %8 egin zuen behera abuztuan, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Sektoreka adierazita, industrian %12,6 egin zuen behera, gehienbat siderurgian izandako beharakadaren ondorioz (%27), zerbitzuan, berriz, 2,6 igo zen eta bizitegi alorrean %6,2 jaitsi zen.

Industria alorrean abuztu arteko kontsumo metatuari dagokionez, iazkoaren azpitik segitzen du. Zementuan kontsumoak %31,3 egin zuen behera, itsas eraikuntza eta konponketan %17,9, kautxuaren eratorrietan %7,2 eta beiragintzan %7,9.

Gas naturala

Abuztuan gas naturalaren guztizko kontsumoak %2,7 egin zuen behera, 2012ko abuztuan izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %1,8 igo zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena, ordea, %5,1 jaitsi zen.

Abuztu artean metatutako kontsumoak %4,6 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta (-%13,3 CCTT-n eta -%1,9 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Uztailean, garraioan erregaien kontsumoa %3,6 igo zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %2,4 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %4,4 egin zuen gora.

Uztail arteko kontsumo metatua %2,4 igo da, iazkoarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %8,1 egin zuen behera eta A gasolioenak, aldiz, %3,8 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera



Petrolioaren kontsumoa munduan
 Abuztuan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 90,7 milioi kupel izan zen (2012ko abuztuaren aldean, %0,7 igo zen). Hartara, urtebetean, Europar Batasunean %1,5 egin zuen behera kontsumoak, 13,4 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan %0,8 jaitsi zen, eta 19,1 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan, aldiz, %2 egin zuen gora, eta 10,5 Mbd kontsumituzera heldu zen.
 Munduan, azken sei hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %0,9 igo da, oro har, eta %6,1 Txinan; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %3,3 eta %0,8 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Gas naturalaren kontsumoa %12,2 jaitsi zen Espainian, abuztuan, 2012ko hil horretan izandakoaren aldean; eta urtearen hasieratik metatutakoak %9,4 egin du behera.
 Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen abuztuan (%3,6), 2012ko abuztuan izandakoarekin konparatuta, eta urteari dagokion metatua ehuneko bera jaitsi da.

Errepideetan erregaien kontsumoak %1 egin zuen gora uztailean, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %0,1 igo zen, eta %1,2 gasolioen kasuan. Uztaileko kontsumo metatutakoak %5,7 egin du behera (%7,3 gasolinena eta %5,3 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %5 egin zuen behera maiatzean, eta urteari dagokion metatua %5,7 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa




Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolioaren upelaren batez besteko prezioa 111 \$ (83,3 €) izan zen abuztuan. Urte mugikorren batez besteko prezioak %2 egin zuen behera (%2,2 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %5,4 igo zen ekainean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 25,4 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %2,6 egin zuen behera uztailean, iazko hil berean izandakoarekin konparatuta, eta 27,4 €/MWh iritsi zen.





Ikatzen prezioa

Ekainean, ikatzen prezioa 74 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %19,1 jaitsi da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %2,5 egin zuen behera abuztuan, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 48,1 €/MWh iritsi zen. CESUR oinarriko prezioa abuztuan 47,9 €/MWh izan zen, %14,8 jaitsiz, 2012ko epealdi horretan izandakoarekin erkatuta.



Erregaien prezioa

EAEn, uztailean, gasolioaren prezioa 1,32 €/l izan zen eta gasolinarena 1,41 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %1,5 eta %3,9 igo ziren, hurrenez hurren.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,2 €/t izan zen ekainean, eta 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %49,2 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFaren datuetan oinarrituta.